



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO HEZKUNTZA BERRITZAPENEN ZUZENDARIAREN ARGIBIDEAK, HEZKUNTZA LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK DITUZTEN IKASLEEK ERRAZAGO IKASTEKO ETA IKASLE HORIEN HEZKUNTZA ETA GIZARTE INKLUSIOA ERRAZAGO GAUZATZEKO METODOLOGIAK ERABILTZEARI BURUZKOAK.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- *Maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzarenak*, (2006ko maiatzaren 4ko 106. BOE), atarikoan *inklusioaren printzipiotik* abiatuta ulertzen du ikasle guztiei eman beharreko hezkuntza-erantzun egokia eta horrela jokatzeko dela guztien garapena bermatzeko, zuzentasunari laguntzeko eta gizarte-koheren handiagoa lortzeko era bakarra interpretatzen du. Halaber, 71. artikulua 3. atalean xedatzen duenez, premia antzematen den unetik bertatik hasiko da hezkuntza-laguntzako premia espezifikoa duten ikasleei erabateko arreta ematen eta, arreta hori emateko orduan, normalizazio- eta inklusio-printzipioen arabera jokatu da.

2.- 175/2007 dekretuak, Oinarriko Hezkuntzaren curriculumak finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, 24. artikulua 2. atalean xedatzen duenez, aniztasunari arreta emateko neurriek ikasleen hezkuntza-premiei eman behar diete erantzuna, inguru normalizatu eta inklusibo batean ikasteko haien interes, motibazio eta gaitasunak kontuan hartuta. Halaber, 4. atalean aniztasunari arreta emateko zenbait neurri, ohiko taldean laguntza ematea besteak beste, sartzen dira.

3.- EAEk hezkuntza inklusiboaren printzipioak bere gain hartzen ditu "eskola inklusiboaren barruan aniztasunari arreta emateko Plan Estrategikoan"; izan ere, printzipio horien arabera gelan gertatzen diren aniztasun-egoera desberdinei egiten zaie aurre, ohiko testuinguru eta geletan irakatsi eta ikasteko egoeren bidez eta ahalik eta segregazio eta murrizketa gutxienarekin, betiere ikasle guztien garapena ahalbidetzerik badago.

OINARRI TEORIKOAK

1. Ikaskuntzari buruzko gaurko teoriak eta ikerketek jakinarazten digutenez, beste pertsona batzuekiko elkarreaginean eta testuinguru desberdinetan gertatzen diren elkarreaginek jarraitzen dutenean gauzatzen da ikaskuntza. Halaber, berdinek oso funtzio aktiboa dute bitartekari gisa ikaskuntzan eta funtsezko laguntzak dira, ikasleen inklusiorako.
2. Halaber, azterketa eta ikerketetan azpimarratzen den bezala, geletan erabilitako metodologia eta irakaslearen rola funtsezko faktoreak dira ikasle guztien eskola-arrakastarako.



HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

Azaldutako arauditik ondoriozta daitekeenez, ikaskuntzari buruzko teoretatik eta hezkuntza-ikerketatik **ARGIBIDE** hauek ematen dira, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduak:

1. Ikasleen heterogeneotasuna taldearen /klasearen egoera normalizat jo beharko dute irakasleek, harreman positiboak eraikitzeko eta berdinen arteko parte-hartzea eta elkarreragina sustatzeko duen garrantziarengatik.
2. Testuinguru naturaletan egin beharreko esku-hartzeak proposatuko dira hezkuntza-planifikazioa egiteko orduan eta ohiko gela berezko testuinguru naturala izango da, ikasle guztien ikaskuntza, parte-hartzea eta arrakasta lortzeko.
3. Hezkuntza-inklusioa ahalbidetzen duen espazioa da ohiko gela. Horretarako, lankidetzaren eta taldearen lan egitearen printzipioan oinarrituta, ikasle batzuek agian behar dituzten baliabide eta laguntza osagarriak antolatu beharko dira. Baliabide eta laguntza horiek ezaugarri hauek bete beharko dituzte:
 - Gelako arduraduna da tutorea.
 - Gelaren barruan eman beharreko partekatutako irakaskuntzan egingo dute lan inklusioari laguntza emateko profesionalak (kontsultorea, aholkularia, PT, Entzumen eta Hizkuntza, Hezkuntza Laguntzako espezialistak, PRL...).
 - Taldeko programazioarekin bat datozen eta hezkuntza-premia berezietako ikasleen premietara egokitzen diren jarduerak programatu dira, eskola-lanaldi osoan eta irakasle eta pertsonal ez irakasle guztiak aurrera eramango dituztenak.
 - Ikasleak ez dira laguntza jasotzeko gelatik irtengo. Aparteko eta behar bezala justifikatutako egoeretan besterik ez dira gelatik at laguntzak emango.
4. Ikerketek bermatutako estrategia eta metodologia parte-hartzaileak erabiliko dira, hauek besteak beste: berdinen arteko laguntzak, bi irakasle gelan batera jardutea, talde interaktiboak, ikaskuntza kooperatiboa, irakaskuntza anitza eta lankidetzaren ikaskuntza.
5. Gelatik at laguntza-profesional desberdinen esku-hartzea eragin ahal duten egoerak edo lanak zeintzuk diren jasota agertuko da ikasturtearen hasierako planifikazioan edo ikasturtean zehar. Adibide gisa, zirkunstantzia horietako batzuk ematen dira:



- Krisi-egoeretan, portaera-arazo larria gertatzen denean, portaera mota horiei aurre egin behar zaiela uste denean eta, portaera larri batzuk direla-eta, beste espazio batzuk behin-behingo erabili behar badira.
 - Trebetasun edo eginkizun berri bat irakasten hasteko, sistema alternatibo edo komunikazioa handitzeko bat esate baterako.
 - Autonomia pertsonala garatzeko jarduera funtzionalak.
6. Ohiko gelatik kanpoko beste testuinguru batzuetan jardutea eskatu ahal izateko moduko portaera larriak dituzten ikasleentzat, krisi-egoeretan jarduteko esku-hartzeen protokolo bat izan beharko du ikastetxeak, profesional trebatuek behar bezala bermatua.

Gasteizen, 2013ko azaroaren 28an

Begoña Garamendi Ibarra
HEZKUNTZA BERRITZATZEKO ZUZENDARIA